

III. ERANSKINA: BAREMAZIOA

A) ESKAERA EGITEN DUENAREN ADINA

(Kontzeptu meta-ezinak)

Atal honetako gehienezko puntuazioa: 10 puntu.

- 2010. urtean 18 urte edo gehiago betetzeagatik: 10 puntu.
- 2010. urtean 16 edo 17 urte betetzeagatik: 5 puntu.

B) MINUSBALIOTASUNAK

(Kontzeptu meta-ezinak)

Atal honetako gehienezko puntuazioa: 5 puntu.

- Eskabidea egiten duenak minusbaliotasunen bat izateagatik: 5 puntu.
- Eskabidea egiten duena adin txikikoa izanda, aitak, amak, tutore legalak edo neba-arrebaren batek minusbaliotasunen bat izateagatik: 3 puntu.

C) FAMILIA UGARIKOA IZATEAGATIK

(Kontzeptu meta-ezinak)

Atal honetako gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

- Kategoria bereziko familia ugarikoa izateagatik: 4 puntu.
- Ohiko kategoriako familia ugarikoa izateagatik: 2 puntu.

D) LAN EGOERA

(Kontzeptu meta-ezinak)

Atal honetako gehienezko puntuazioa: 10 puntu.

- Euskal Autonomi Erkidegoko irakastegietan 2009-2010 ikasturtean eskolak ematen ibili diren irakasleak: Haur Hezkuntzako 2. zikloko irakasleak, Lehen Hezkuntzakoak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak, Batxilergokoak, Lanbide Heziketako ziklo formatiboetakoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak eta Unibertsitatekoak.